



UNHCR
ACNUR

Agência da ONU para Refugiados

ERREFUXIATUEI BURUZ IRAKASTEA

6 ETA 9 URTE
BITARTEKOAK

**LEHEN HEZKUNTZARAKO
IKASKETA-PLANA**

Aurkitu baliabide gehiago hemen: acnur.org/ensenar-sobre-las-personas-refugiadas.html

© 2017 ACNUR

HASI AURRETIK

Ikasgaien plangintzan pertsona errefuxiatuen, asilo-eskatzailen eta migratzaileen inklusioari buruzko oharra:



Errefuxiatuen, asiloaren, nazionalitatearen eta migratzaileen inguruko jarduerak egin aurretik, har ezazu une bat zure gelako ikasleei buruz hausnartzeko.

Horietako batzuk errefuxiatuak al dira, asiloa eskatzeko prozesuan al daude edo aberrigabeak al dira? Kasu horretan, pentsatu haiekin eta beren gurasoekin hitz egitea, adinaren arabera.

Ahal bada, sar itzazu gurasoen eta haurren ideiak eta iruzkinak saioetan, eta eska iezaiezu galderei erantzuteko, baldin eta gai horiei buruz hitz egin nahi dutela espreski adierazi badute.

Aberrigabeek ez dute inongo herrialdetako nazionalitatea. Aberrigabearen izaera hainbat egoeraren ondorio izan daiteke. Adibidez, zenbait lurraldetan, talde etniko edo erlijioso batzuk ez dira herrialdeko herritar gisa

aitortzen herrialde horretako lege nazionalen hala ezartzen delako; eta haur batzuek, beren gurasoen herritartasun-herrialdetik kanpo jaio izanagatik, ezin dute beren gurasoen herrialdeko herritartasuna lortu, ez eta jaio diren herrialdekoa ere.

Munduko hainbat herrialdetako legeek ez diete amei beren nazionalitatea beren seme-alabei transmititzen uzten. Aberrigabeek zailtasunak izan ditzakete oinarrizko eskubideez gozatzeko, hala nola hezkuntza, osasuna, enplegua, mugitzeko askatasuna eta abar. Gauza horiek gabe, askotan oztopoei eta etsipenei egin behar izaten diete aurre.

Ikasgelan haur aberrigabeak badituzu, zuhurra izan "herrialdea" edo "nazionalitatea" bezalako hitzak erabiltzean. Horren ordean, "zuen etxea" edo "zuen kultura" bezalako hitzak erabil ditzakezu.

LABURPENA

Ikasketa-programa hau lau ataletan banatzen da:

1. Trebetasun sozioemozionalak garatzea eta ikaskideekin harremanak erraztea

Atal honen helburua da hurrek emozio desberdinak ezagutzeko duten gaitasuna sustatu eta garatu dezatela, bai beren buruengan, bai besteengan. Eta horien aurrean modu egokian erantzuten ere irakasten die. Gainera, haurrak gelako beste ikasle batzuek izandako esperientziekiko enpatia adieraztera bultzatzen ditu.

1.A Ikasketa-helburuak

Gelako edozein pertsonarekin lan egitea interesgarria izan daitekeela ulertzea.

Gelako kide guztiek beren familiaren eta aurrekoen isla den izen bat dutela ulertzea.

1.B Ikasketa-helburuak

Nire emozioak ulertzea eta emozioak adierazteko erabil dezakedan hiztegia garatzea. Nire emozioetan modu aktiboagoan pentsatzen hasia.

2. Aniztasuna ospatzea

Atal honek mundu osoko kulturak aurkezten ditu, eta haurrak kultura horietako ideiak, jolasak, musika, agurrak eta janaria aztertzea eta haiekin jolastera animatzen ditu. Ikasleek gure artean dauden antzekotasunak eta desberdintasunak alderatu eta kontrastatu ditzatela sustatzen da, bai eta horiengatik poztu daitezela ere.

Ikasketa-helburuak

Munduko toki desberdinetako pertsonak elkarri eragiteko eta adierazteko modu desberdinak dituztela ulertzea.

Desberdintasun horiek mundu aberatsa eta anitza egiten dutela ulertzea.

Etxean kultura berriak esploratzea, aurkitzea eta horiei buruz hitz egitea.

3. Iritsi berriak ulertzea

Atal hau etorri berriei ikasgelan harrera egiteko esperientzian ardatzen da. Eta bertan, hizkuntza berri bat ikastea, jolas berrietan jolastea, lagun berriak egitea eta eskola-egun batean etorri berri bezala bizitzea nolakoa izango litzatekeen aztertzen da.

Ikasketa-helburuak

Ulertzea eskolan eta ikasgelan haur berria izatea zergatik izan daitekeen esperientzia beldurgarria eta zirraragarria.

Gelako haur berriekiko enpatia sustatzea.

4. Giro baketsua sortzea

Atal honek eskola-kode bat garatzera eta errespetatzera bultzatzen ditu haurrak, klase baketsu bat mantentzeko. Ikasleak beren portaerari buruz eta horrek gelako gainerako kideengan izan dezakeen eraginari buruz hausnartzera animatzen ditu, bai eta beren buruarengan eta besteengan izandako portaera positiboa balioestera ere.

Ikasketa-helburuak

Nire baitan egunero ikasgelan sortzen diren sentimenduek hainbat modutan erreakzionatzera eraman nazaketela ulertzea.

Ikasgelan elkarrekin nola lan egin dezakegun ulertzea, guztiontzat esperientzia hobea eta zorientsuagoa sortzeko.

Lasaitzea behar dudanean, zerk lagun nazakeen ulertzea.

LEHEN HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA


1.A Ikasleen arteko harremanak errazteko eta maila partikularrean kulturaarteko kontzientzia sortzeko jarduerak

1A1 Gelako harremanak erraztea

Jarduera horietarako txartelak ACNURen "Errefuxiatuei buruz irakastea" webgunean (esteka) deskarga daitezkeen jarduerarrietan aurki ditzakezu. Orri bana dago letren eta zenbakien korrespondentzia-txartelekin.

Inprimatu eta ebaki txartelak eta banatu zure gelako ikasleen artean, eta ziurtatu txartel berdinak modu orekatuan banatuta daudela, bakoitzak bere txartelari dagokion beste bat aurkitu ahal izateko.

Letra larriak Letra xeheak



Letren korrespondentzia egiteko, ikasleek beren txartelaren letra bereko txartela duen ikaskide bat aurkitu beharko dute.

Ekuazioa Eraitza



Zenbakien korrespondentzia egiteko, ikasleek dagokien zenbakia aurkitu beharko dute. Hiztegi-txartelak ere erabil daitezke. Egin hitzekin eta dagozkien deskribapenekin

hiztegi-txartelen sorta bat. Haur bakoitzak txartel bat hartu eta dagokion txartela duen beste haur bat aurkitu behar du. Azkenean, haurrek jardueratik gustatu zitzaiena adieraz dezakete.

1A2 Hitz egidazu zure izenaz

Jar ezazu zeregin bat: haur bakoitzak etxean galdetu dezala zer esan nahi duen bere izenak, beren anai-arreben izenak edo beren gurasoen izenak, nondik datozen eta ea beste pertsona batzuk dauden bere familian izen horrekin. Izenak alfabetoetan idazten badira, eskatu gurasoei alfabeto horietan idatz ditzatela.

Biribilean edo bikoteka, ikasleek honako galdera hauek egin diezaioketek elkarri:

“Nola duzu izena?”

“Nondik dator zure izena?”

“Zer esan nahi du?”

Era berean, haurren izenak hizkuntza desberdinetan aurkez ditzakezu (adibidez, Pierre, Peter edo Petteri), eta galdetu ea beste ikaslerik badagoen gela, maila edo eskola berean sustrai bera duen izen desberdin batekin.

Taldean, klaseak alfabeto desberdinetan idatzitako izenak ikus ditzake eta horiek idazten saia daiteke. Bakoitzak bere izena irudikatzen duen marrazki bat egin dezake. Eskegi marrazkiak ikasgelan.

1.B Adimen emozionala eta haurren trebetasunak eta gaitasunak garatzeko jarduerak, beren emozioak ezagutzeko eta besteen emozioak interpretatzeko

1.B.1 Emozioak antzematea

Jarduera honetarako irudi-joko bat aurki dezakezu ACNURen "Errefuxiatuei buruz irakatsi" webgunean deskarga daitezkeen jardueretan: (esteka).



harrituta



pozik

Inprimatu eta ebaki orriak, eta erakutsi haurrei aurpegi desberdinak. Eska iezaezu deskribatzen dituzten hitzak identifikatzeko: "pozik", "triste" edo "haserre".

Era berean, emozioa azaldu dezakezu eta haurrei emozio hau sentituz gero zein aurpegi izango luketen jartzea eskatu diezaiekezu.

1.B.2 Emozioen mimika egitea

Haurrek talde txikietan edo bikoteka jolas dezakete. Eska iezaezu ikasi dituzten emozioak eta ezagutzen dituzten beste batzuk keinuekin irudikatzeko. Utzi elkarri irakasten beren etxeetan eta kulturetan entzundako edo beren jatorrizko hizkuntzako hitz berriak.

Jarduera hau 1.B.1 atalaren ondoren egin daiteke eta 1.B.3 atalaren ondoren errepikatu, hiztegi sofistikuagoa garatu ondoren.

1.B.3 Hiztegi emozionala garatzea

Sar itzazu hiztegi emozionalako hitz konplexuagoak eta ñabartuagoak, eta galdetu haurrei ea badakiten zeintzuk diren emozio konplexu horiek.

Ez badituzte ezagutzen, egoera desberdinak erabil daitezke emozioa azaltzeko eta haurrei adierazpen egokia har dezatela eskatzeko.

1.B.4 Nire sentimenduak azaltzea

Haurrek ideia argia izan eta beren baitan gutxienez zortzi emozio antzeman ondoren (adinaren arabera), ikasgelan "emozioen taula" batzuk jar daitezke. Adibidez, kortxozko taulak edo paper magnetikoak izan daitezke.

Emozio bat idatz dezakezu taula bakoitzaren goiko aldean. Haurren argazkiak edo haien izenak jar daitezke taula azpiko saski batean.

Egunean zehar, haurrek beren izenak mugitu ditzakete taula batetik bestera, nola sentitzen diren jakin dezaten besteek.

Adibidez, haur bat puzzle bat egiten ahalegintzen ikusten baduzu, taula bat aukeratu eta bere izena bertan jartzeko gomendatu diezaiokegu. Gauza bera egin dezakezu beste haur bat oso pozik dagoela ikusten baduzu. Honako hauek izan daitezke aukera batzuk: frustratuta, pozik, haserre, baztertuta, hunkituta, urduri.

2. Kultura eta herrialde desberdinetako aniztasuna ikasteko eta balioesteko

Haurren mugak zabaltzeko eta kultura eta herrialde desberdinetan dauden antzekotasunak eta desberdintasunak antzemateko aukera bat da.

Aurkitu aukera bat zure gelako hainbat lekutatik datozen haurren gurasoekin hitz egiteko, eta galdetu ea prest dauden jarraian deskribatzen diren jardueretan parte hartzeko.

Jarduera horietan, herrialde edo kultura bateko jarduera edo ohituretako baten ordeztu familia horien herrialdeko edo kulturako jarduerak egin ditzakezu, baldin eta prest badaude eta zurekin lan egiteko denbora badute. Har ezazu une bat ziurtatzeko gurasoak eroso sentitzen direla zuk gai honi buruz irakastearekin eta gonbit egin iezaiezu burutzen dituzun saioetan parte hartzera.

2.1 Agurtzeko modu desberdinak

Gela osoari herrialde eta kultura desberdinetako agurrak erakusteko jarduera antola dezakezu; haur bat aukeratu eta harekin solasean aritu. Ondoren, eskatu ikasleari beste pertsona bat modu berean agurtzeko.

Eskatu haurrei beren artean agurra praktikatzeko. Egin gauza bera gainerako agurrekin. Galdetu haurrei ea zer antzekotasun eta ezberdintasun aurkitu dituzten agurren artean. Galdetu zein den beraien gogokoena.

Ikus ezazu ea hurrek asteko egun bakoitzean ikasitako modu desberdinetan elkar agurtzeko konpromisoa har dezaketen. Gogorarazi iezaiezu aurreko egunean gelatik joan baino lehen, eta ziurtatu horrela agurtzen diozula zuk ere goizean iristen den lehen ikasleari.

Astearen amaieran, agurra gogoratzea erraza edo zaila izan den azaldu dezakezue eta horren zergatiari buruz hitz egin dezakezue. Egunero beste agur bat egitea nolakoa izango litzatekeen hausnartu, eta galdetu iezaiezu ea ezagutzen duten leku berri batera joan den norbait, joan behar izan duena, edo ea inoiz beraiek egin behar izan duten.

2.2 Agurrak mapan

Agurrak finkatu ondoren, begiratu mapamundia ikasleekin, agurrak nondik datozen adierazteko. Leku bakoitzean pegatina bat jar dezakete.

Jolas bat ere proposatu dezakezu: seinalatu etiketa bat eta eskatu haurrei toki horretako agurra edo antzeko zerbait gogoratzeko.

2.3 Munduko musika

Jarri musika eta eskatu ikasleei hori marraztu eta deskriba dezatela, erritmo bat egin dezatela edo dantza dezatela. Honako galderak hauek egin:

Zein emozio sentitzen dituzue?

Zein kolore ikusten dituzue musika entzutean?

Musika animalia bat bezala irudikatu beharko bazenute, zein animalia izango litzateke?

Musika amaitu ondoren, eskatu haurrei asmatzeko nondik datorren, eta orain arte ikasi duten herrialdea edo kultura identifikatzeko. Jarraitu jarduera honekin toki desberdinetako musikekin.

Ikasleek gogokoen duten kantua hautatu dezakete, eta poema bat idatzi, marrazki bat egin edo dantza bat asmatu, gozatu dutena adierazteko.

2.4 Munduko janaria

Haurrei gosaldu dutena kontatzeko eskatzea; gela osoarekin, talde txikietan edo bikoteka. Eskatu pertsona bati talde osoari horren berri emateko (talde txikietan edo bikoteka hitz egin badute). Eskatu iezaiezu hitz egin dezatela gosaldu ohi duten beste gauza batzuei buruz. Egin elikagaien zerrenda bat.

Ikusi dituzuen herrialdeetako ohiko gosariak aurkeztu. Ahal izanez gero, antolatu sukaldaritza-eskola bat, haurrek gosaria prestatzeko aukera izan dezaten. Meriendan jan ahalko dute prestatutakoa.

2.5 Munduko jokoak

Talde txikietan, aurkeztu haurrei herrialde eta kultura desberdinetako jolasak.

Emaiezu 20 minutu aukeratu dituzten

jolasetan jolasteko; eta txandakatu daitezela. Aire zabalean jolasteko jolasak badira, ikusi jolas-ordua baino 20 minutu lehenago atera zaitezketen, elkarrekin jolasteko.

Jolasak amaitzean, elkartu gela osoa jolasen arauak eta nola jokatu duten laburbiltzeko.

Galdetu umeei jolas hauek lehendik jolasten zituztenen antzekoak diren.

Galde iezaiezu zer gustatu zaien gehien eta zer gustatu zaien gutxien jolasetatik.

Talde txikietan edo banaka, eskatu haurrei jolasen arauak elkarrekin idazteko eta ikasgelarako poster bat egiteko. Edo bestela, talde txikietan, beste ikaskideei joko bat aurkez diezaiekete, eta aukeratutako jolasaren arauak eta jolasteko modua azalduko dizkiete.

3. Ikasgelan ikasle berriak hartzeko esperientzia ulertzen laguntzeko jarduerak

3.1 Hizkuntza berri bat ikastea

Antolatu ikasleekin jarduera bat, taldeka edo biribilean, eta hasi hitz egiten zentzurik gabeko hitzekin edo itxurakeriekin 30 segundoz. Ondoren, haurrei orri bat banatu, zentzurik gabeko bi hitzekin edo paragrafo batekin. Eska iezaiezu paperezko orrietan zentzurik gabeko hitzei edo paragrafoen erantzunak idazteko edo marrazteko.

Ondoren, hitz egin gertatutakoari buruz eta galdetu nola sentitu diren. Elkarrekin, hausnartu ea nola sentitu litekeen hizkuntza hitz egiten ez duen haur bat eskolara joan eta lehenengo egunetan. Aukera itzazue hitz batzuk sentimendu hori deskribatzen dutena. Hitz horiek ikasgelan zabaldu, eta arbel ireki bat jarri, haur berri horiei laguntzeko egin ditzaketan gauzak idazteko.

3.2 Zer ikasi dugu?

Haurrei herrialde eta kulturei buruz zer ikasi duten galdetu. Agurrak, hizkuntza, jolasak, janaria eta musika sar daitezke.

Galdetu iezaiezu nola sentituko lirakeen gauza horiek guztiak desberdinak balira haientzat, leku berri batera bidaiatu dutelako. Saiatu ahalik eta emozio deskribatzaile gehien lortzen. Zure jarduerak egin badituzu, edo ikasketa-plan honetan deskribatutako trebetasun sozioemozionaletako jarduerak erabili badituzu, animatu haurrak aurretik ikasitako taulak eta hitzak erabiltzera.

Azkenik, eska iezaiezu talde txikiak osatzeko eta antzezlan bat egiteko, abesti edo poema bat idazteko, edo poster bat marrazteko, beren herrira eta ikasgelara iritsi berri den norbaiti nola lagun diezaieketen azaltzeko.

4. Ikasgela baketsua eta guztiontzako ikaskuntza-giro eraikitzailea sortzeko jarduerak

4.1 Niregan bakea sortzea

Taldetan, eska iezaiezu pentsatzeko triste, haserre edo frustratuta sentitu diren aldietan.

Berrikusi aurreko jarduerak; haurrek emozio horien aurrean izan ditzaketen hizkuntza, agertokiak, ekintzak eta erreakzioak azaltzeko.

Egin zerrenda bat sentimendu horiek lasaitzeko eta prozesatzeko egin ditzaketen gauza moten inguruan. Eseki zerrenda paretan.

Ikasleren batek egunean zehar portaera zaila duela ikusten baduzu, animatu ekintza horiek egitera. Eman liburu bat, sakon arnastu berarekin, beste jarduera lasaigarri batera bideratu, eta zoriondu gogaituta sentitzen denean jarduera horiek bere kabuz egitea aktiboki erabakitzen badu.

4.2 Nire gelan bakea sortzea

Jardueraz gain, galdetu haurrei ea baliagarria izango litzatekeen sentimenduak prozesatzeko edo lasaitzeko gune lasai bat izatea.

Galdetu ea gune-mota horretan zer jarduera egin daitezkeen. Ikusi gelan gune hori antolatu daitezkeen.

Gune bereizi bat sor dezakezu gelaren inguruan saskiak edo kartoizko kaxak

erabilia. Erlaxatzeko gunean, ukitzeko, manipulatzeko eta irakurtzeko gauzak sar ditzakezu.

Hula-hoop bat edo beste objektu bat jar liteke, haurrak une batez eseri ahal izateko edo leku lasai bat behar badute.

Ikasleek erabaki behar dute hara joan nahi duten ala ez. Gela handi bat izanez gero, landare bat edo esertzeko zerbeit biguna jartzea erabilgarria izan daiteke.

Gune horretara ez lirateke inoiz zigor gisa bidali behar; baizik eta bertara joatera animatu behar dira, horren beharra dutela sentitzen badute. Beraiek erabaki behar dute gunea noiz utzi. Horrela, beren aurre egiteko mekanismoez kontziente izatera animatzen ditugu.

4.3 Ikasgelako arau-multzo bat sortzea

Aurreko jardueretan oinarrituta, hala nola jarduera orokorrean edo talde txikietan, eskatu haurrei ikasgelarako arauak elkarrekin sortzeko.

Arau bakoitza sortu ondoren, idatzi paper handi batean eta mantendu arauak ikasgelan zintzilik urte osoan.

Kontsulta itzazu eta animatu ikasleei egunean zehar kontsulta ditzaten.

Baliabide gehiago: acnur.org/ensenar-sobre-las-personas-refugiadas.html

Hezkuntza-baliabide hauek Mialy Dermish-ek garatu ditu. Ikasgelako aniztasunari buruzko ikasketa-planen gaineko ekarpena Alain Uwumugambik, Niala Khalilek eta Hibatillah Ibrahimek egin dute